

# Valderejo Parke Naturalean zehar XXII. ibilaldia


URRIAK 26 IGANDEA



## IBILBIDE LUZEA



Ibilbide hau publiko orokorrarentzat pentsatuta dago, 21,2 kilometroko distantzia eta 844 metroko desnibel positiboa ditu. Lalastrako parketxean hasiko da 9:00etan. 6,6 kilometroan hornidura-gune solidoa egongo da eta 14. km-an hornidura-gune likidoa.





# IBILALDIAREN EGUNERAKO ARGIBIDEAK



1

## Partaideen harrera

Ibilaldiko partaideak parketxetik pasa beharko dira dortsal zenbakia hartzeko, ibilbidearen hasiera baino 20 minutu lehenago (08:40).



2

## Ibilaldiaren hasiera


Ibilaldi luzea 9:00etan aterako da ezarritako hasiera-puntutik, guztiok batera irtengo gara. Irteera ibilaldiko antolatzaile batek adieraziko du.



3

## Hornidura gunea

Hornidura gunean dortsal zenbakia aurkeztu beharko da. Lekuko ostalariek egindako patata tortilla, txokolate, fruta eta urak (komenigarria da baso edo botila berrerabilgarria ekartzea hondakinak ez sortzeko) osatuko dute.



4

## Ibilaldi amaiera

Ibilaldiaren amaiera hasiera-puntuaren berdina izango da. Parketxetik igaro beharko zara, opari polit bat itxaroten zaitu eta! sortea baldin baduzu, dortsal zenbakiarekin zozkatuko den saria ere eskura dezakezu.



# ARAUAK

1

Ibilaldia Parque Natural batean zehar igarotzen da beraz, errespetatu beharko duzu parkeko araudia:

<https://valderejoparkea.eus/eu/araudia>



2

Momentu guztietan eta salbuespenik gabe antolatzaileek zein laguntzaileek emandako aginduak jarraitu beharko dira.



Jarraian ezarritako kontrol denborak bete behar dira:

Ibilbide Luzea:

3


- Parketxea: 9:00
- Ribera: 11:00
- San Lorentzo: 13:00
- Coronas: 14:00
- Amaiera: 16:00



Ekitaldiak Gurutze Gorriaren eta Gaubeako Babes Zibilaren babesa izango du. Ibilaldiaren azkenengo pertsona antolatzailetako bat izango da denbora guztian segurtasun neurriak, araudia eta denbora maximoak betetzen direla bermatzeko.


4

Bai ingurugiroari (flora, fauna, paisaia edo edozein baliabide naturalari) baita antolatzaile, laguntzailei edo partaidei zuzendutako edozein errespetu falta guztiz gaitzetsia izango da.



5

Antolatzaileak ez dira arduradunak izango ibilaldian zehar agertu daitekeen istripuengatik. Antolatzaileek aldatu ditzakete ibilbideak partaideen segurtasuna bermatzeko.



6

Aurretik aipatutako araudien ez betetzeak ekitalditik kanporatze zuzena adieraziko du.

